

# **ERGA, TIBO, PUM!**

## **SINOPSISIA**

Euskaltzaindiak Euskara Batuaren azken araua onartuko du gaur eguerdian. Euskaltzainburuaren idazkaria, MIREN GOTZONE, osoko bilkurarako azken gauzak prestatzen ari dela, bere iloba kuttun AINGERU MIRENAREN deia jaso du; kontu garrantzitsuren bat esan behar omen dio, eta Lezotik Bilbora etorri zaio. Bilkura hasi baino ordu erdi lehenago jarri dute hitzordua Euskaltzaindiaren egoitzaren ondoko kafetegian. Ilobaren mutil-lagunak, berriz ere, ez du EGA azterketa gainditzea lortu; AINGERU MIRENA prest dago injustizia horrekin kostatuta ahala kostatuta amaitzeko, eta MIREN GOTZONE izeba behartuko du Euskara Batua errazteko arau xelege batzuk eramatera Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurara.

## **PERTSONAIAK**

**MIREN GOTZONE JAUREGI ELIZETXE:** 72 urte, Bilboko euskaldun peto-petoa. Euskaltzainburuaren idazkaria. Erretiroa hartzeko adina aspaldi igaro arren, izugarri maite du bere lana, eta ez luke jubilatuta nahi Euskara Batuaren arau guztiak onartu aurretik. Euskal hiztun zuzena da, eredugarria, kontserbadorea eta garbizalea.

**AINGERU MIRENA PALACIOS JAUREGI:** 19 urte, MIREN GOTZONEren iloba kuttuna. Lezokoa, euskaraz eskolan ikasitako mutil pijoa; ikastuna eta txirriporroa, betaurreko eta koadrodun alkandorekin ibiltzen den horietarikoa. Izeba asko maite du, baina lehen aldiz maitemindu da, eta Juan Angel mutil-lagunak berriz ere ez du EGA azterketa gainditzea lortu.

**MIKEL, ZERBITZARIA (offean)**

**IRRATIKO ESATARIA (offean)**

**JUAN ANGEL, AINGERU MIRENAREN MUTIL-LAGUNA (offean)**

## **ESZENA BAKARRA**

*Kafetegi bateko barrualdea, bazkalordua. Offean, jendearen murmurioa entzuten da, edalontzi eta kikaren zarata, eta Euskadi Irratiko musika. Arratsaldeko ordu biak jo berri, albistegiko esatariaren hitzak entzuten dira offean:*

### **ESATARIA (offean)**

Arratsalde on, jaun-andreak. Euskaltzaindiak gaur onartuko du Euskara Batua osatzeko azken araua. Euskaltzainen Osoko Bilkura 14.30ean elkartuko da Bilboko egoitzan, eta Euskara Batuaren 145.762. araua onartuko du, zehazki, Neptunoko sateliteen atzealdeetako kraterren galaktoponimoen izenei buruzkoa...

*Alde batetik MIREN GOTZONE sartu da, presaka. Berokia, poltsa handia eta maletatxo bat daramatza. Ondo jantzita ageri da, bilerara joan behar baitu.*

### **MIREN GOTZONE**

*Presaz, sakelako telefonotik hizketan*

Eguerdi on, MIREN GOTZONE Jauregi Elizetxe nauzu, Euskaltzainburuaren idazkaria. Osoko Bilkurarako ardo gutxi ekarri duzuela iruditu zaigu, eta, otoi, ekar zeniezazkigukete beste hiru upel? Hiru, bai. Ordu bi eta erdietarako beharko genituzke. Nik iloba kuttunarekin hitzordua dut orain, geroratu ezineko kontu larriren bat esatera etorri zait. Lezotik Bilbora, baina berarekin amaitu bezain laster zain izango nauzue egoitzaren atarian, beranduenez... (erlojuari begiratuta) 29 minutu barru. Azkar ibili!

*Mahai gainean utzi du poltsa, maleta mahai ondoan; aldeetara begiratu du, eta segidan eskumuturreko erlojuari. Berokia kendu eta aulkian jarri du, eta eseri egin da. Aurrera begira, beste aldean ikusten ez den tabernariari hizketan mintzatu da.*

Mikel, atera menda egoskin bat hormatxo batekin, mesedez.

### **ZERBITZARIA (offean)**

*Eskatutakoa zer den ziur jakin gabe*

*E... Betikoa, ez??*

### **MIREN GOTZONE**

Bai. Neu hurbilduko naiz hartzera.

*MIREN GOTZONE jaiki eta beste aldetik atera da. Orduantxe sartu da hasierako aldetik AINGERU MIRENA. Gabardina handia darama, eguzkitako betaurreko handiak eta kapela buruan (espia itxura du). Presaka sartu da bera ere. MIREN GOTZONEren gauzak identifikatu eta beste aldeko aulkian eseri da. Orduantxe azaldu da MIREN GOTZONE kikara eta teontzia eskuetan.*

### **MIREN GOTZONE**

Ene! Eskerrak Juda Tadeo deunari! Berantesten hasita nengoen... Zeu zara, ezta, AINGERU MIRENA?

### **AINGERU MIRENA**

*urduri, ingurura begira*

Ixo! Hitz egin baxuago, izeba! Badakizu inguru hauetan kotilla asko dagoela...

*Aurrerantzean, MIREN GOTZONEk askotan euskara zuzen-zuzenean errepikatuko ditu ilobaren esaldiak, zuzenketa pinpirinak eginez.*

**MIREN GOTZONE**

*Edaria prestatu bitartean*

Belarriluzeak nonahi, bai. Eta nireak ere erne dituzu hain premiazkoa den hil ala biziko kontu hori entzuteko. Gogoratu Osoko bilkura dudala 28 minutu barru.

**AINGERU MIRENA**

*Gabardina barrura begira*

Lasai, 15 minuturekin nahikoa.

**MIREN GOTZONE**

*Zutik, gauzak mahai gainean utzita*  
Zer hartu nahi duzu?

**AINGERU MIRENA**

*Egoeraz une batez ahaztuta*

Kafesnea sakarinarekin basoan.

**MIREN GOTZONE**

*Zerbitzariari deiadar eginez*

Mikel, atera akeitesne bat gozagarriarekin edalontzian, mesedez. Neu hurbilduko naiz hartzera.

*MIREN GOTZONE barrara joan bitartean, AINGERU MIRENAk aulkia biratu du publikoak ondo ikus dezan, gerora, gabardina azpian duena. MIREN GOTZONE bueltan dator basoarekin. Lagunaren aurrean utzi eta bere aulkian eseri da.*

**MIREN GOTZONE**

*Infusioa zerbitzatu bitartean*

Beno, esan, bihotza. Zein da arazoa? Egon. Axola dizu kontatzen didazun bitartean Osoko Bilkurako aurreorotidazkia prestatzen hastea? Andresek azken hitzartze bat aurreikusi du eta...

**AINGERU MIRENA**

*Barre txikiarekin*

Ez, ez. Prestatu lasai. Ondo etorriko zaigu...

*MIREN GOTZONEk maleta mahai gainean jarri du. Estalki gogorra kenduta, idazmakina da. Orri zuri bat sartu du eta idazteko prestatu du.*

**MIREN GOTZONE**

*Idazmakina prestatu bitartean*

Nola ondo etorriko zaigula?

**AINGERU MIRENA**

*Serioxeago jarrita, tonu tragikoan*

Esan behar dizudana oso grabea delako eta apuntatzea nahi dudalako.

**MIREN GOTZONE**

*Ilobari begiratu gabe, idazten hasita, garrantzirik eman gabe*  
Zer da hain larria den hori, nik idatziz jasotzea nahiko zenukeena?

**AINGERU MIRENA**

*Intrigarako denbora tartea utzita*

Juan Angelek, nire mutil-lagunak, "egagarrenez" suspenditu du EGA azterketa!

**MIREN GOTZONE**

*Idazmakinan idatziko balu bezala*

Jon Gotzonek "enagarrenez" huts egin du EGA azterketan!

**AINGERU MIRENA**

*Haserretzen hasita*  
Egagarrenez, ez! EGAGARRENEZ!

**MIREN GOTZONE**

*Memoria egiten jarrita*  
Egagarrenez, Egagarrenez... ez dut uste horrelako sarrerarik dagoenik  
Hiztegi Batuan, ezta Orotariko Euskal Hiztegian ere! Joxerra  
Gartziaren beste "gartziakeria" horietako bat ote da?

**AINGERU MIRENA**

*Eskua jasota, diktaketan*  
Ez horixe! Iturria AINGERU MIRENA Palacios Jauregi da, ni neroni!  
Apuntatu: Egagarrenez... pila bat ikasi ondoren eta behar baino saiakera  
gehiago eginda.

**MIREN GOTZONE**

*AINGERU MIRENari begira, erdi barreka*  
Kar, kar! Uste duzu hain erraza dela hitz bat onartzea Euskara Batuan?  
Zu bai inozoa! Euskaltzaindiak kalitatearen urre gorritzko Q  
ziurtagiria dauka, prozedura txit landu eta neketsuekin.

**AINGERU MIRENA**

*Kolpea joaz mahaian*  
Txit landu, neketsu eta sudoku-bat-zenbaki-erromatarrekin-egitea baino  
konplikatuagoekin! Euskara Batua erraztu beharra dago! (*Isilunea*) Juan  
Angelek deitu zidanean atzo goizean albiste txarra emateko... nolako  
negarrak... gaixoak ikasten pasatu duen ordu pilarekin... 23 igande  
daramatzagu elkarrekin Maripoxa Eneako ganbarara igo gabe!! 23!! Baina  
gaur horrekin amaituko dut betirako!

**MIREN GOTZONE**

*Berriz idazmakinan zentratzen*  
Betiko, ez betirako...

**AINGERU MIRENA**

*Kirioak dantzan hasieran, ondoren lasaiago.*  
Ikusten!!? Bueno, "entzun eta apuntatu".

**MIREN GOTZONE**

*Zutituta*  
Aingeru Mirena, iloba maitea, badakizu asko estimatzen zaitudala eta  
zure amarekin zorretan egongo naizela beti nerabezaroan dohaintzan  
eman zidan giltzurrunarengatik, baina hau gehiegizkoa da... (*erlojuari*  
*begiratuta*) Nik Osoko Bilkura dut 24 minutu barru. (*gauzak jasotzen*  
*hasita*) Nahi baduzu, amaitutakoan berriz elkar gaitezke eta kontatuko  
dizkidazu nahi dituzun pena guztiak...

**AINGERU MIRENA**

*Zutitu egin da oldartuta*  
Izeba, utzi gauza guztiak mahai gainean eta eseri!

**MIREN GOTZONE**

*Kasu egin gabe*  
AINGERU MIRENA Palacios Jauregi, kordea galdu duzu. Ni banao hemendik...

**AINGERU MIRENA**

*Berokia irekitzeko prest*  
MIREN GOTZONE Jauregi Elizetxe, utzi gauza guztiak mahai gainean eta  
eseri! Bestela...

**MIREN GOTZONE**

*Harrotuta*

Bestela? Bestela zer??

**AINGERU MIRENA**

*Gabardina ireki du exhibizionista baten moduan. Barruan, dinamitazko gerriko bat eta ordulari bat dauzka. Ordularian atzera kontaketa dago, 19:45 inguruan.*

Bestela kafetegi hau, Plaza Barria eta Euskaltzaindia nirekin batera txiki-txiki egingo ditut! Ez hasi garrasika eta ez deitu inguruko arreta! Gaurko Osoko Bilkuran nik diktatuko dizkizudan Euskara Batu sinplearen arauak onartuko dituzue... bestela... PUM!!

**MIREN GOTZONE**

*Urduri, baina begien aurrean duena onartzeari uko eginez*

A-a-AINGERU MIRENA! Ba-ba-baina zer da hori!? I-i-inuzenteen eguna aspaldi pasatu zen eta oraindik goiz da inauterietarako...

**AINGERU MIRENA**

*Eskuan bonba zartarazteko tramankulua altxatuta*

Bada, ez baduzu zonbi kuadrilla izugarria ikusi nahi karnabalak baino lehen, eseri eta apuntatu esan behar dizudana! Bestela... (mehatxu egin dio eskuko tramankuluarekin).

**MIREN GOTZONE**

*Urduri, sinesten hasita, baina lasaitu nahian*

Tira, tira... lasai! Makina-idazlari aparta naiz eta amen batean idatziko ditut esan behar dizkidazunak (eseri eta idazmakina prestatuta)! Prest naukazu!

**AINGERU MIRENA**

*Tramankulua eskuetatik kendu gabe, gabardinako poltsikotik bildutako paper luze bat atera du. Kiribila askatu eta lurreraino heldu da.*

Ederki! Has gaitezen...

**MIREN GOTZONE**

*Paperaren luzerarekin harrituta*

A-a-AINGERU MIRENA! (eskumuturreko erlojuari begira) 18 minutu baino ez zaizkit geratzen...

**AINGERU MIRENA**

*Bere paparreko erlojua seinalatuta eta izebaren plantak eginez La-la-lasai, mi-MIREN GOTZONE! Zehazki XX (kontaketan ageri den zenbaki zehatza) minutu geratzen zaizkizu...*

**MIREN GOTZONE**

*Baretu nahian*

Jainko maitea! Hau erokeria hutsa da!! Burutik eginda zaude!!

**AINGERU MIRENA**

*Haserre eta oihuka*

Isildu eta hasi idazten!!!

*Isilune txiki bat. AINGERU MIRENAK ahotsa prestatu du deklamatzeko. MIREN GOTZONEk aitaren egin du hiru-lau bider.*

**AINGERU MIRENA**

*Diktatzen*

Hona hemen euskara batu sinplearen 12 arauak...

**MIREN GOTZONE**

*Kexaka*

12?? Ez al zenuen aski dekalogo batekin...

**AINGERU MIRENA**

*Erretxinduta*

Hara! Ederra bota dit gaur mila milioigarren araua onartu behar duenak... Isildu eta hasi idazten, kontagailua martxan dago eta!!  
(erlojua seinalatuta)

**MIREN GOTZONE**

*Frustrazioz*

Ados, ados, buka dezakegun lehenbailehen...

*Isilune txiki bat. AINGERU MIRENAK berriz prestatu du ahotsa deklamatzeko. MIREN GOTZONEK aitaren egin du hiru-lau bider.*

**AINGERU MIRENA**

*Diktatzen*

Hona hemen euskara batu sinplearen 12 arauak: BAGA!!

**MIREN GOTZONE**

*Isilune laburra. Harrituta*

Aizu, AINGERU MIRENA, begirune pixka bat, mesedez. Ez dizut txintik esango "Euskara Batu sinplearen" lelokeriaz, baina niri ez esan halakorik, eta are gutxiago, gaztelaniaz...

**AINGERU MIRENA**

*Harro*

BAGA "bat" da Mikel Laboaren kantuan, eta xake taldeko telegramean komentatu nuenean asmoa atzo iluntzean, kideen gehiengoari iruditu zitzaion poetikoagoa zela ohiko zenbakien ordeztu Laboarenak erabiltzea...

**MIREN GOTZONE**

Xake taldeko telegramean komentatu zenuenean??? (eskuak errezo egiteko *jarrita*) Arren, esadazu kamera ezkuturen bat dagoela kafetegian...

**AINGERU MIRENA**

*Bere burua ezkututzen*

Ez, nik dakidala (*ingurura begira*)! (*baretuta*) Aizu, hainbestetan eteten al dituzu Urrutia, Urkia eta konpainiaren hitzaldiak!!? Normala hain bilera luzeak egitea...

**MIREN GOTZONE**

*Haserretzen hasita*

Hara! Zer atrebentzia! Zeure burua euskaltzainen pare jartzea ere!

**AINGERU MIRENA**

*Haserretuago*

Pare, ez! Gainetik! Orain, isildu eta apuntatu!

*Isilune txiki bat. AINGERU MIRENAK ahotsa prestatu du deklamatzeko. MIREN GOTZONEK aitaren egin du hiru-lau bider. MIREN GOTZONEK idazmakinako teklak sakatuko ditu AINGERU MIRENAREN hitzaldiak irau bitartean; arau proposamen guztiak berdintsu deklamatuko ditu, pregoilaria balitz bezala.*

**AINGERU MIRENA**

*Diktatzen*

Hona hemen euskara batu sinplearen 12 arauak:

BAGA!! (*gong hotsa entzun da offean*) HATXEA KANPORA! Aurrerantzean, euskaraz ez da hatxerik erabiliko, belaunaldi berriak erotzeko baino ez baitu balio! (*Oihuka, manifestazio batean bezala*) EZ, EZ, EZ! HATXERIK EZ! Ez dugu "ahoskadura nagiko letra" madarikatua nahi gurean!!

**MIREN GOTZONE**

*Barreka*

Jainko maitea! Zelako txotxolokeria! Joan den mendeko eztabaida leloak berpiztu nahian?

**AINGERU MIRENA**

*Publikoko norbaiti, bezeroa delakoan*

Aizu! Zu bai, betaurrekoduna! Zuk ba al dakizu zergatik Ertzaintzak ez duen hatxerik, "herria" zaintzeko erakundea bada? (*erantzuteko denbora gutxi utzita*)

Ez, ezta? Nik esango dizut: Ertzaintza sortu zutenean, ez zelako hatxea erabiltzen. Euskara Batua sortu zutenean, euskaltzainak joan ziren Arkautera esatera hatxe bat jarri behar zutela auto guztietan... (*isilune laburra*) ai, ai, ai... euskaltzain inuzenteek beltzak ikusi zituzten... (*egurra ematearen keinua eginez*) Hurrengo Osoko Bilkuran onartu zuten "beltzak ikusi" esamoldea, Txagorritxuko ospitalean egindako bileran...

**MIREN GOTZONE**

*Suminduta*

Ez esan txatxukeriarik! Eusko Jaurlaritza sortu zeneko jatorrizko izenari eutsi nahi izan zaio, besterik ez.

**AINGERU MIRENA**

*Harrotuta*

Jakina, jakina... eta "umorea", "ospitalea" eta "ordu" hitzetan, euskara Europako gainerako hizkuntzetatik bereizi (*MIREN GOTZONEren tonua imitatuz*) "nahi izan da, besterik ez". Zergatik beste guztietan hitz horiek hatxea dute hasieran, eta euskaraz ez?

**MIREN GOTZONE**

*Nahasita*

"Umorea", "ospitalea" eta "ordua" hatxe gabe ageri dira tradiziozko euskal literaturan, horrengatik ez zaie letra erantsi. Gainera, zure asmoa ez al da hatxea kentzea?

**AINGERU MIRENA**

*Kirioak dantzan*

Nire asmoa da arau batzuen zentzugabekeria agerian jartzea!

**MIREN GOTZONE**

*Ulertarazi nahian*

Zu bai zentzugabea! Eta hatxerik gabe, nola bereiziko genituzke astea eta hastera? Edo nola desberdinduko genituzke harra eta arra, e!?

**AINGERU MIRENA**

*Sinetsi ezinda*

(*MIREN GOTZONE imitatuz*) "Nola desberdinduko genituzke harra eta arra?" Tira, izeba, badakit osaba Ramon, zure senarra, zomorro samarra dela, baina ez dut uste hatxe batengatik inork kainaberaren puntan zintzilikatuko lukeenik... (*manifestazio estilora bueltatuz*) Atsekabeturik baino nahiago "hatxegabeturik" bizi! Hatxea ez da behar, eta kito! (*isilune laburra; arnas hartu du; ondoren, oihu eginez*)  
BIIIIIGARRENA...

**MIREN GOTZONE**

*Hasperen egin ostean, idazteko prest*  
BIGA...

**AINGERU MIRENA**

*Nahastuta, papera hartuta berriz*  
Biga... rrena, bai... e...  
BIGA!! (*gong soinua offean*)

TXISTUKARIAK BATU! Aurrerantzean, euskaraz ez da txistukaririk bereiziko, zeta, ixa eta ese guztiak ese idatziko ditugu, euskaltegiko lehen mailan egiten duten bezalaxe! (*oihuka, manifestazio batean bezala*) EZ ZETA, EZ IXA, DENA ESE GISA!

**MIREN GOTZONE**

*Tarte bat hartu ondoren, buruarekin ezetz eginez*  
Honek ez du ez hanka ez bururik! Txistukariak euskararen berezko soinuak dira...

**AINGERU MIRENA**

*Buruarekin ezetz eginez*  
Hamarretik bederatzi dentistek gomendatzen dute txistukariak ez bereiztea, zetak ahoskatzea arriskutsua delako hortz-oin eta hortzen esmaltearentzat, bereziki paletentzat.

**MIREN GOTZONE**

*Haginak seinalatuz*  
Ebakortz...

**AINGERU MIRENA**

*Nahasita*  
Eba zer?

**MIREN GOTZONE**

*Ernegatuta*  
Ebakortz! Paleta!

**AINGERU MIRENA**

*Nahasita, keinu femeninoa eginez*  
Paleta ni??

**MIREN GOTZONE**

*Ebakortza kolpatuz*  
Ebakortza da paleta!!

**AINGERU MIRENA**

*MIREN GOTZONE imitatuz hasieran*  
"Ebakortza da paleta"!! (*Isilune laburra*) Zuk bazenekien Gipuzkoako umeak direla Europan ortodontzia gehien behar izaten dutenak!!? (*Zeta asko markatuz*) Zzzzergatik izzzzango ote da??

**MIREN GOTZONE**

*Aitaren eginez*  
Angela Maria!!

**AINGERU MIRENA**

*Umorez*  
Ez, AINGERU MIRENA!!!

**MIREN GOTZONE**

*Hasperen eginez*  
Alkainen programa hartako esketxa dirudi honek...



*Gaia aldatu nahian*

Aizu, AINGERU MIRENA!! Eta nola lortu dituzu gerrikoa egiteko lehergaiak?

**AINGERU MIRENA**

Erraz, erraz!! Osagaiak Amazonen erosi nituen eta Xanti lehengusu txikiak Youtubeko tutorial batekin prestatu dit txukun-txukun! Nitroglizerina, Trinitrotoluenoa eta...

**MIREN GOTZONE**

*Urdurituta*

Aizu, baina jarriko zion atzera kontaketa geratzeko moduren bat, ezta?

**AINGERU MIRENA**

*Lasaituz*

Kable hau moztu behar da, baina esan dit kontuz ibiltzeko... (MIREN GOTZONE presaz jaiki eta kable hori koilararekin moztera joan da; lortu du kablea moztea)... okerrekoa moztuz gero, atzera kontaketa bizkortu daitekeelako!

Atzera kontaketa bizkortu egin da. Zenbakiak arinago igarotzen dira.

**AINGERU MIRENA**

*Larrituta*

Izebaaa! Baina zer egin duzu! Orain ez dit denbora emango manifestu guztia irakurtzeko!!!

*MIREN GOTZONE eseri da berriz eta kordea galdu du mahai gainean.*

**AINGERU MIRENA**

*Urduri, manifestuaren zatiak mozten eta kentzen*

HIGA, kanpora (moztu egin du zati bat)! LAGA, kanpora (moztu egin du zati bat)! BOGA, kanpora (moztu egin du beste zati bat)! SEGA eta ZAI ere bai (zati bi moztu ditu azkar samar...)! ZOI! ZOI ezinbestekoa da!

ZOI!! (gong hotsa entzun da offean; AINGERU MIRENAk ikusi du MIREN GOTZONE kordea galduta dagoela) ZOI!! (berriz entzun da gong hotsa) ZOOOOIIIII!!! (gong hotsa iratzargailu moduan entzun da etengabe; MIREN GOTZONE kolpean esnatu da halako batean)

**MIREN GOTZONE**

*Non dagoen jakin gabe*

Ze iskanbila da hau! Amets egiten ari nintzen Euskara Batuaren azken araua onartzen ari ginela, Neptunoko...

**AINGERU MIRENA**

*Presa sartuz*

Bada, esnatu eta ekin idazteari, edo Neptunoko sateliteak agian bertatik bertara ikusiko dituzu (bonba seinalatuz)! Idatzi! (Tarte laburra utziz) ZOI (gong hotsa entzun da offean) SEKULA ONDO BETEKO EZ DITUGUN ARAUAK INDARGABETU! Aurrerantzean, arau guztiek probaldia izango dute, eta herritarrek ondo barneratzen ez dituztenak indargabetu egingo dira!

**MIREN GOTZONE**

*Burua galtzearen keinua eginez*

Ai, AINGERU MIRENA, gosaltzeko jaten dituzun opil industrial arrosa horiek burua zeharo hondatu dizute!! Halako memelokeriarik!

**AINGERU MIRENA**

*Azalpena emateko gogoz*

Memelokeria arau zentzugabeena! (*irakaslearena eginez*) Pena merezi, ez, merezi bakarrik; zertan egin behar, ez, zertan egin ala egin behar; dantzatu dut, ez, dantzatu naiz...

**MIREN GOTZONE**

*Asaldatuta*

Tira, tira, tira... eta, orduan, jendearen utzikeriarengatik arauak ezabatu eta kito, ez? Mesedez! Imajinatu Trafikoko arauekin gauza bera egingo bagenu... abiadura ikur guztiak kendu beharko genituzke, eta... semaforoak!!!

**AINGERU MIRENA**

*Emozioz*

Izeba MIREN GOTZONE! Alferrik zabilzate hizkuntzak arauen kortse estuetan sartu nahian! Gora hizkuntza askeak! Behera arau txatxuak! (*kolpean eten du diskurtsoa*) Eta hurrengo puntura pasatuko naiz, bestela denboraz gaizki ibiliko gara... (*MIREN GOTZONEk baietz egin dio buruarekin presaka*) BELE!! (*gong hotsa entzun da offean*) EUSKALTZAINDIKO KALKO-ASMATZAILEAK KALERATU!

*MIREN GOTZONEk ez du esaldi osoa idatzi. Pentsakor geratu da AINGERU MIRENari begira.*

**MIREN GOTZONE**

*Oso nahasita*

"Euskaltzaindiko kalko-asmatzailleak"?? Azalduko didazu zertaz ari zaren...

**AINGERU MIRENA**

Euskaltzaindiko kalko-asmatzailleak, bai! Ondotxo dakizu zertaz ari naizen! Kalko-asmatzailleak dira ganbarako gela horretan dituzuen langileak, egun osoa igarotzen dutenak Euskara Baturako hitzak asmatzen!!

**MIREN GOTZONE**

*Aitaren eginez etengabe*

Genobeba donea, done Kukufato eta Begoñako Andre Maria maitea!! Baina, baina, baina... zer langile? Zer hitz asmatu?

**AINGERU MIRENA**

*Adibideak emateko prest*

Ze hitz asmatu?? (*adibideak burura etorri ahala esanez*) Zeru-harraskaria! Gurutzaontzia! Atzerako ispilua! Haizetako-garbigailua! Buru-hausgarria!... Laketontzia!!! (*isilune laburra*) Croissanta *ilgoropil* deitu ez dutenean!??

**MIREN GOTZONE**

*Oso harrituta*

Tira, tira, tira... hitz horiek guztiak Euskara Batuaren parte dira!

**AINGERU MIRENA**

*Harroxko*

Jakina! Horrengatik gizaki hilkor arruntek gero eta gutxiago ulertzen dute Euskara Batua! Imajinatu lagun biren arteko elkarrizketa. Batak dio: "Zemuz oporretan?" Eta besteak: "Primeran! (*etzanez idatzitakoak imintzioekin lagunduz*) Gurutzaldia egin dugu Erresuma Batuan! Bidaiatu bitartean *buru-hausgarriak* egin ditugu ontziaren bizkarrean, eta portu bakoitzean *garagardo txigortuak* dastatu ditugu!" (*barreka hasi da*)

**MIREN GOTZONE**

*Purrustaka*

Bada, ez dakit zer arazo ikusten diozun elkarrizketa horri! Normal-normala da!

**AINGERU MIRENA**

*Barreka*

Normala burua Neptunon daukazuenentzat!! Imajinatzen ditut kalko asmatzaile horiek, egiten dituzten gosari-bazkari-merienda-afari horietako batean, trago luze bana eskuetan, elkarri esaten: "Elgoibarren rascacielos bat egin ditek. Nola esango diagu rascacielos euskaraz?" (*isilunea*) (*bestearena eginez*) "Bada... Etxeluzea? Etxehandia? Ez, ez, etxetuboa!" (*lehengoarena eginez*) "Ez, ez! 'Rascacielos' (*imintzioekin lagunduta*) baldin bada, zergatik ez... (*pentsatuz*) 'zeru-harraskaria' (*imintzioekin lagunduta*)?" (*bestearena eginez*) "Kar, kar, kar! Ez haiz ausartuko hori Hiztegi Batuan sartzera..." (*lehengoarena eginez*) "Ezetz? Eutsiok kubatari!" (*isilunea; AINGERU MIRENA gisa hizketan berriz*) Inpresentablea! Ez, barkatu, "aurkezgaitza"!

*Isilunea. MIREN GOTZONE nekatu egin da eta eztanda egin du.*

**MIREN GOTZONE**

*Haserre betean zutituta, publikoari begira*

Hori da uste duzuen? Euskaltzaindiak mende bat baino gehiago daramala arau zentzugabeak eta hitz-zerrenda amaigabeak egiten, hirtunez hizkuntza zaila gerta dakien!? Horrelako jarreraren atzean Euskaltzaindiaren lanarekiko mespretxua baino ez dago, erabakiak ausaz hartuko bagenu bezala, bolizko dorretik herri xehea bazter utzita, eta ez idatzizko tradizioari zuhur begiratuta.

**AINGERU MIRENA**

*Lagunaren haserrealdiari utsita*

Zuk esango didazu zer pentsatu behar dugun hirtun arruntek!! (*guztietan imintzioekin lagunduta*) MinutU, baina segundo; barkU, baina markO; hatz, hatxerekin, baina atzamar, hatxerik gabe; dohainik, hatxerekin, doan, hatxerik gabe; historia, hatxerekin, istorio, hatxerik gabe...

**MIREN GOTZONE**

*Tonua igota*

Ingelesez *history* (*jistori ahoskatuz*) hatxerekin da eta *story* (*estóri ahoskatuz*) hatxerik gabe, eta lurrazaleko milioika ingeles hirtun nahasita daudela iruditzen zaizu? Hain zaila da onartzea adituz osaturiko erakunde batek hirtuntzaren garapen egokia bermatzeko erabakiak hartzen dituela? Arestik, Txillardegik edo Mitxelenak ulertu zuten Euskara Batua sortzeak zenbait gorabehera sorraraziko zituela, baina bidesari txikia iruditu zitzaizen hirtuntzak izan zezakeen etorkizuna kontuan hartuta; hain konplexua da hori ulertzea!?!?

**AINGERU MIRENA**

*Lagunaren tonuari utsita*

"Zenbait gorabehera"??? Errusia eta Ukrainaren arteko gerrari ere "zenbait gorabehera" deituko diozu? Hatxearen zentzugabekeria, txistukarien anabasa, hirtz pila baten falta, kalko barregarrien erabilera... eta hori ez dizudala oraindik ergatiboa aipatu!!!

**MIREN GOTZONE**

*Sutan, leher eginda*

Utzi bakean ergatiboa!! Ergatiboa ez da ukitzen!! Sakratua da!!

(isilunea)

Ez dituzue ulertzen Euskara Batuaren printzipioak eta gaitzetsi egiten dituzue Euskaltzaindiaren arauak. Zuek merezi duzuen da anarkia linguistikoa, "glotokaosa", "elemendia"!! Badakizu zer, halako hiztunentzat bada, nik ez dut lanean jarraitu nahi!! Akabo guztia! Pikutara! Sakatu botoia nahi duzunean, AINGERU MIRENA!!

**AINGERU MIRENA**

*Nahasita*

Bar... katu? Zer esan didazu?

**MIREN GOTZONE**

*Irmo*

Nahi duzunean aktibatzeke zure gerriko leherkaria. Hainbeste izerdi eta neke hartzea unibertsoko elementu guztien izendapena, idazkera eta erabilera arautzeko, zer eta gero halako erantzun iraingarria jasotzeko... Are gehiago, ez baduzu zuk sakatzen, neuk egingo dut oraintxe bertan. Ekarri hori!!

*MIREN GOTZONE eta AINGERU MIRENA borrokan hasi dira. MIREN GOTZONEK eskuko tramankulua kendu nahi dio, eta AINGERU MIRENAK ez du halakorik egin nahi. Borrokan dabiltzala, AINGERU MIRENAREN sakelakoa jotzen hasiko da. Bake unetxo bat adostuko dute hitzik gabe (kontagailuak martxan jarraitzen badu ere):*

**AINGERU MIRENA**

*Arnasestuka*

Juan Angel da, zera, (etorkortasunez) Jon Gotzon... (arnas hartuta) Bai, Juan Angel?

**JUAN ANGEL (offean)**

*Pozez*

Xuguxito... EGarena, broma zen!! Gaingitu egin dut, azkenean!!

*MIREN GOTZONEK eta AINGERU MIRENAK publikoari begiratzen diote; MIREN GOTZONEK, haserre, AINGERU MIRENAK, zirkunstantzia aurpegiarekin.*

**BELTZERA**

*Beltzean, "Baga, biga, higa" kantuaren bertsio bat entzungo da, kantaren letraren azken partean "Erga, tibo, pum" entzunez.*